

ERRENTERIA LEHEN MUNDU GERRAREN GARAIAN: LANGILEAK ETA EMAKUMEAK

Miguel Angel Barcenilla

1914. urtean

Errenteria Gipuzkoako herri ertaina dugu, ez sona handikoa, baina Eibar kenduta, hedapen azkarren eta nabarmenena sumatu duena.

1914ko urte hartan, herriak 6.000 biztanle inguru zeuzkan. Gehienak kalean bizi ziren, 150 baserritako mila bat lagun izan ezik. Herriguneak izaera industrialara zuen erabat, 29 fabrika ziren

herri barnean edo bilaldean. Fabriketan 1.300 langile inguruk egiten zuten lan, eta haietako heren bat baino gehiago emakumeak ziren. Hirigunean bizi ziren langile gehienak, baina ez ziren falta aldameneko herrietatik eta baserritik egunero gerturatzeko ziren langileak.

Martin Mozo udal medikuak txosten bat idatzi zuen hiru urte lehenago, 1911ko azaroan alegia, herriko osasun egoerari buruz, Errenteriako



“klase ertainaz” mintzatuz. Ez zen harentzat “erdikoa” izatea gaurko soziologo liberalek maitatzen duten kontzeptua, alegia, aberatsen eta pobreen artean zegoen populazio multzoa. Bere iritziz herriko klase erdikoa bai fabrikako langileen familiek bai enplegu xume batez, jornalez edo soldata txikiko lanez bizi ziren familiek osatzen zuten. Zalantzarik gabe, talde hauek osatzen zuten batez ere herriko biztanleria. Esan daiteke, beraz, herriak langile izaera argia zuela.

Bizi-egoera gogorra zen jende horrentzat. Iraupeneko soldatak jasotzen zituzten langileek, familiako otordu eskasak eta etxebizitza txar bat bermatzeko gai besterik ez zirenak. Horregatik, familien elikadura urria zen energia aldetik eta monotonoa, gainera. Egunero menu berbera jaten zen etxe gehienetan: ogia, ardoa, leka eta barazkiak eta urdai pixka bat. Haragia, fruituak, arrautzak ezohikoak ziren langileen mahaietan, eta etxe xumeetan esnea sartzen ari zen garai hartan.

Etxebizitzari buruz, aipatutako Martin Mozoren txostenak etxe berriak –orduan Biteri kaleko ingurukoak eta “Etxeberrietako” auzokoak– higiene aldetik ikusita aski egokiak zirela esaten zuen, baina gainerako herriko etxebizitza guztiak eskasak, osasun gaitzekoak eta botatzea merezi zutela. Hau guztia fabrika asko herri-gunean bertan kokatuak zeudela ahaztu gabe eta etxebizitzetara kea, zarata eta ur zikinak noiz edo noiz botatzen zituztela.



RÍO OYÁRZUN, EN LOS ALREDEDORES DE LA VILLA

Fabriketako lana gogorra eta nekeza zen orokorrean. Oso higiene gutxi zegoen eta diziplina zorrotza zen. Lanegunak hamar edo hamaika ordukoak ziren arruntean. Langile guztiek pairatzen zituzten halako lanaldiak, baita 14-16 urteko neska eta mutil dezentek ere.

Hala eta guztiz ere, 1903. urtetik aurrera bizi-egoera hobetzen hasi zen, urte haietan soldatak prezioak baina zertxobait gehiago igo zirelako batez ere. Gainera, estolderia hedatu zen herri-gunean, baita ur-banaketa ere, merkatu eta arropa garbitzeko latsarri berriak eraiki ziren eta lehenagotik zegoen latsarria egokitu zuten. Horregatik guztiagatik higiene orokorra hobetu zen, nahiz eta estolderiak akats nahiko izan, Mozoren arabera.

Kontsumo Kooperatiba batzuen eta Elkarren Arteko Seguru Elkarteen sorrerek ere lagundu zuten langileen egoera suspertzen. Azken hauek kuota baten truke laguntza medikoa edo pentsio txiki bat ematen zieten kideei, eta garai hartan gizarte-segurantzarik ez zegoenez, ugaritu egin ziren. Enpresek beraiek sortu zituzten horrelako elkarte batzuk “La Ibéricak” (Olibet




kasu; alderdi politikoez ere bai, "La Protectora Liberal", "La Fraternidad Republicana", "La Humanidad del Porvenir" (sozialista), "Errenderiko Euskotarren Anaitasuna" (EAJrena) eta "La Flor de Lisek" (karlista), besteak beste. Lotura politikorik gabeko beste batzuek ere gauza bera egin zuten.

Aipatzekoa da bizi-egoeraren hobekuntza honen onurak gizonek emakumeek baino gehiago jaso zituztela, heriotza-tasaren joerak iradokitzen duen bezala. Ez da harritzekoa, izan ere emakumeak ez ziren eskubide politikoen subjektuak, legearen ikuspegitik bigarren mailako pertsonak ziren, Kode Zibilak ezarritako arauen arabera. Honek guztiak moralarekin eta gizarte jarduerarekin bat egin zuen, arlo publikotik eta gune erabakitzaileetatik emakumeak baztertzeko lagundu zuen; gainera, kontuan hartu behar da emakumeek gizonen soldataren erdia kobratzen zutela lan berberetatik.

Industriaren aldetik, fabrika berriak agertzen ziren urtero eta horrekin batera antzinako faktoriak handituz joan ziren etengabe. Papelera, esate baterako, 1903. urtean 175 langile izatetik, 1915ean 286 langile izatera iritsi zen. Olibet ere 87tik 154ra, eta Fabrika Handia, 89tik 266 langile izatera. Horrek ekarri zuen kanpotik jendea ekartzea eta horrenbestez, biztanleriak gora egin zuten azkar eta jarraiki.


1914. urte inguruan biztanleriaren erdia baino gehiago ez zen Erreterian bertan jaioa, beste nonbait baizik; dena den, etorkin gehienak euskaldunak ziren (gipuzkoarrak batez ere) eta horregatik, garai hartan, etorkinen etorrerak ez zien herriko kulturari, gizarte-harremanei eta euskararen erabilerari kalte egin; beste leku batzuetan, Bizkaian esaterako, gertatzen zenaren kontra, immigrazioak ez zuen gizarte-hausturarik eragin. Erreterian, 1914. urtean giza bakea zen nagusi, gatazka eza nabaria beraz, nahiz eta langileria zabala eta trinkoa, bizi-egoera gaitzekoa izan eta etorkin asko jaso. Langile-Elkarte bat zegoen, sindikatu baten antzekoa, Sociedad de Oficios Varios delakoa, 1904. urtean sortua, baina bere eragin eta afiliatzea murrizak ziren. Greba bakarra izan zen herriko industria sortu zenetik, abarkagileena, 1913an. Gizarte Erlijioak eta Elizak ere eragin handia zuen jendearen portaera eta jarrera publikoetan.

Garai hartako ekintza politikoa zenbait eliteren kontua zen. Herri-jendea baztertu samar zegoen joko politikotik, hauteskundeak izan arren. Izan ere, alderdi politiko instituzionalek karguak elkarren artean banatzen zituzten maiz hauteskunde-deialdiak egin baino lehen, eta horrela gertatzen ez bazen boto erosketak edota beste iruzur batzuk erabiltzen zituzten hauteskundeak bereganatzeko. Handikiek bakarrik osatzen zituzten alderdiak eta agindu, erabaki eta ideiak goitik behera ezartzen ziren bere barnean. Dena den, eztabaida politikoa pizten zen herritarrengan noizean behin, batez ere hauteskunde garaietan eta, beste aldetik, alderdi garrantzitsu bakoitzak ireki zuen herrian bere elkarte edo "círculo" zelakoa; bere zaleak han biltzen ziren. Egoitza haiek betebeharrak politikoa bete arren, bazkideentzat dibertimendu eta kultur tokiak ere baziren. Garai horretakoak dira "Centro Republicano", 1902an sortua, "Círculo de la Coalición Liberal", 1903koa, "Euzkadi" (jeltzalea), 1904koa eta "Círculo Jaimista" (tradizionalista), 1905koa.



Dibertimenduari dagokionez, herrian bazeuden berrogei taberna eta sagardotegi inguru eta hamar bat kafe eta jatetxe. Urte luzeetan buila eta iskanbila asko gertatzen ziren maiz taberna eta sagardotegien irteeretan, eta alkateek zorrotz zelatatzen zituzten ixteko ordutegiak eta irte-teko uneak. Jazarpen hori saihesteko asmoz lagun elkarte batzuk sortu omen ziren herrian.

Beste alde batetik, igandeko dantzaldiak, Musika Bandak jota, eta zinema ziren dibertimendu arruntenak. Madalenako jaietan zezenak, pilota partidak eta zezen suzkoa ere izaten



ziren. Bertsolariak leku askotan aritzen ziren. Saihestezina zen herriko jaietan; maiz izaten ziren bertsolariak sagardotegietan eta lagun elkartee-
tan. Baina aurpegi serioagoa ere bazuen bertsolari-
ritzak, ugaritu egin baitziren gizarte-gaiei buruzko
bertso paperak. Kultur aldizkarietan ere argitara-
tzen zituzten.

Bizi-egoera gehienentzat gogorra zen arren,
alderdi batzuetatik ikusita behintzat, etorkizunari
baikor begiratzen zioten autoritate, patroiz eta lan-
gile arrunt askok. Etengabeko garapen industriala
alde batetik, lanpostu eskaintza zabala eta popu-
lazioaren gaztetasuna beste aldetik eragile garran-
tzitsuak ziren optimismo hori bultzatzeko. Gainera,
komunikabide guztiek bai zientziak bai teknikak
edozein arazo konpontzeko zuten ahalmenaren
sinesmena edonora hedatzen zuten, garai hartako
lorpen tekniko berrien distiraz lagunduta.

Baina optimismoaren pean ezkutua, gara-
penaren aurpegi itsusi bat agertu zen. Martín
Mozok berak adierazten zuen familia pobre askok
egunero jasotzen zutela udalak Benefizentzian
emandako bazkaria eta eskale dezente zeu-
dela herrian. Hori bai, bizpahiru eskale besterik
ez zirela bertan jaiok, gainerakoak kanpotarrak
zirela, batez ere galiziarrek, azpimarratzen zuen
medikuak, gehienak fabriketan lan egitera etorri-
takoak, baina lanik gabe geratutakoak.

Bestalde, gero eta nabariagoak ziren herrian
industriaren kontaminazioak zekartzan ondo-
rioak, bai airean bai erreketan eta ibaian. 1919.
urterako mediku, industrial eta herritarrek osatu-
tako batzorde batek ibaiaren egoera "ulertezina"
zela adierazi zuen, eta inguruko herriko guztietan
Errenteria herri zikina eta osasungaitza zela esaten
zen.

Gerra

Gerrak lehiakideei ekartzen dizkien ondorioak
izugarriak direla jakina da: sarraskiak, suntsiketak
eta abar. Garai hartako errenteriarrek ongi
sumatu zuten hori, oso gertu, Lapurdiko herri
guztietan, hain zuzen ere, gazte asko hil baitziren
borrokan.

Hemen, aldiz, ez zen horrelako ondorioak izan,
Espainiako gobernu neutrala izan zen eta. Baina
beste mota batzuetako ondorioak nabaritu ziren.

Gerra hasi orduko, honen ondorioz paira-
tutako lehengaien hornidura etenak herriko indus-
tria ia gelditu zuen. Hilabete batzuk pasa ondoren,
ordea, herri industrializatu handien ekoizpenaren
beheraldiaz baliatuta, tokiko industriak garapen
esanguratsua izan zuen. Soldadak igo egin ziren eta
lanaren eskaintza ere bai. Enpresa berriak ireki ziren
eta etorkin gehiago erakarri. Enpresek izugarriko
etekinak atera zituzten gerratean, baina langileek
1915. urtetik aurrera gogor jasan zuten elikagaien
prezioen igoera paregabea, eta horrekin batera, bizi-
mailaren jaitsiera nabaria.

Beste herri batzuetan bezala, Europako
gerrak eztabaida bizia piztu zuen Errenteriako
gizarte barnean, izan ere, alde batera eta bestera
egin zuten askok. Herriko bertsolarietan jarrera
horren adibide nabaria dugu. Txirritak, adibi-
dez, bertso berriak jarri zituen Frantzia eta alia-
tuen alde; Taberna bertsolariak, berriz, alemanen
alde jokatzun erantzun zion, eta Josepa Antoni
Aranberrik Xenpelar ilobak bertsoak osatu zituen
Ingalaterraren aurka batean eta Alemaniaren
alde bestean. Dena den, gutxi batzuek izan ezik,
errenteriarrek bat egin zuten Telleri Txikik gerrari
buruzko bertsoari eman zion bukaerarekin:

Guk segitu dezagun
neutralidadian

Eta Josepa Antoni Aranberrik berak, alemanen
aldekoa izanda ere, holako bertsoa kantatu zuen:

Ager zaitez zeruko
uztargi ederra
pakia ematera
akabatu gerra

Zabaleta anaia bakezaleen bertsoa ere antze-
koa zen:

Gure Europa maitagarriya
dago odolez bustita,
pena samiñak zabaldurikan
munduan parte guzita;
nori etzaio biyotza lertzen
tamaña ontan ikusita?
gauz onik ez datorkigula ortik
egon gindezke etsita,
bata bestiai barka zaiogun
gorroto danak utzita.

Esan dugun bezala, Erreterian gerrako ondorio zuzenik gertatu ez bazen ere, zeharkakoak izan ziren, orokorrean gerrarekin lotzen ez diren horietakoak. Haietako bi aipatuko ditut: lan eta gizarte gatazkaren agerraldi ohargarria eta emakumeen egoeraren aldaketa.

Lan gatazka

Fenomeno hau ia ezezaguna izan zen herrian 1917a arte. Gerraren sarraskiek eta suntsiketek talka egin zuten Europako hainbeste herrialdeetako gizarte antolakuntza, kontzientzia eta moralarekin: uste eta mito franko hautsi egin ziren orduan. Honek eragin zituen ondorioen artean herrialde askotan izan zen lan gatazkaren indartzea aipa dezakegu. Errusiako Iraultzaren guda garaian bertan egin zen eta Alemanian, Hungarian, Italian, eta baita Frantzia eta Britainia Handian ere izan ziren iraultza saioak. Gainera langileen egoera itogarria zela eta, 1919 eta 1922 bitartean lehenago ezagutzen ez ziren mailalara iritsi ziren gatazkak European eta Ameriketako Estatu Batuetan.

Gipuzkoara, lan gatazka ia ezezaguna zen herrialdera, kontzientzia berriko korrante hori berehala hedatu zen, bertako langileek pairatzen zuten bizi-mailaren beherakadak lagunduta.

beste lanuzte batekin hasi ziren. Greba luzea eta iskanbilatsua izan zen hura. Iraila arte iraun zuen eta gainera kale gatazkak sortu ziren eskirolen eta grebalarien artean alde batetik eta Guardia Zibilaren kontra bestetik. 1919an eta batez ere 1920an soldata hobe eskatzeko grebak ugarituz eta gogortuz joan ziren, hala nola zortzi orduko laneguna aldarrikatzeko eta enpresei sindikatuen onarpena eskatzeko. Herriko fabrika eta sektore guztietan piztu ziren grebak, 1920. urtean zehar batez ere. Laneran, Olibeten, Fabrika Handian, Niessenen, adibidez, gertatu ziren grebak, baita metalurgia eta okintza arloetan ere. Gainera, maiatzean greba orokorra gertatu zen herrian Guardia Zibilaren ekintza baten aurka.

Giro honetan herriko sindikatuek izugarri hedatu ziren. Hiru ziren garrantzitsuenak: Federación Local de Sociedades Obreras, sozialista, Agrupación de Obreros Vascos jeltzalea eta Sindicato Católico Libre. Aurreko biek ehun bazkide baino gehiago zeuzkaten: AOVk, adibidez, 150 edo, eta Sindicato Católico Femeninoak 200 inguru.



Erreterian 1918. urtean piztu zen lehenengo greba, Niessen lantokian izan zen. Egun batekoa izan zen greba hura, ez oso sonatua, baina uztailean Pasaiaiko eta Erretereriako metalurgiako langileak

1921. urtean beste krisi ekonomiko bat hasi zen, eta langabezia eta lanaren ezegonkortasuna areagotu zituen. Horren ondorioz, lan-gatazka nabari baretu zen, are gehiago 1923an Primo de Riverak ezarritako diktadurak erakunde sindikal batzuk debekatu zituen.

Emakumeak

Emakumeen bizimoduan eta genero harremanetan zenbait aldaketa gertatu ziren Europa osoan gerra garaian, emakumeek gerra-tokira bidalitako gizonen utzitako lanpostuak bete behar izan zituzten eta; horien artean, emakumeek orokorrean egiten ez zituzten zeregin asko. Egoerari esker, gizartean errotutako emakumei buruzko uste batzuk urratzen hasi ziren, hauen gutxiagotasunaren eta etxetik kanpoko lanak garatzeko ezgaitasunaren inguruko usteak barne.

Gerratean bertan Eskandinaviako herrialdeek eta Sobietar Batasunak bozkatzeko eskubidea eman zieten emakumei. 1918. eta 1919. urteen bitartean Erresuma Batuak, Alemaniak, Suediak, Herbeherek, Austriak eta Luxenburgok ere onartu zuten eskubide hori.

Beste aldetik, gerrate barnean ere Europako herrialde askotan aldaketa ikusgarri batzuk ageri

ziren emakumeen jantzia eta portaera publiko eta pribatuan: klase burgeseko neska gazteak ateratzen hasi ziren helduen konpainiarik gabe dibertsio-lekuetara, gizonetako harremanetan era libreagoan jokatzeko hasi ziren arlo askotan, eta kirola egiten ohitu ziren. Jantziaren aldetik, XIII. mendetik aldatu ez zen gonien luzera laburtu egin zen, kortse estugarria baztertu eta ile motzaren erabilera areagotu zen.

Aldaketa horiek berehala ikusi ziren gure inguruan, Europako goi burgesiako familiek udaldia Biarritzen edo Donostian igaro ohi baitzuten. Herrietako bizimoduan motelago sartu ziren horrelako ohiturak eta portaerak, baina 1919an badaude zenbait zantzu adierazten dutenak herriko neska jokabide horrekin hasiak zirela. Esate baterako, 1919. urteko *Renteria* aldizkarian "Renteria evolucionaria" izenburuarekin agertutako marrazki batzuk aipa ditzakegu, aurreko urteetako herriaren bilakaerari buruz mintzatzen zirenak. Fabriken ugaritasuna, garraio publikoaren izugarriko garapena eta ume kopuruaren handitzea azpimarratzen dira bertan, besteak beste. Horretaz gain, bineta bitan neskei buruz zera esaten da: "Antaño: Las modestas y recogidas renterianas de aquellos tiempos vestían sus trajes de merino para ir a misa y a vísperas. Hogaño: las desenvueltas muchachas del día visten a la *dernier* y muestran sus encantos en la vía pública." Era berean, nabarmendu behar da esaten ez den baina marrazkietan



Modas

Antaño

Las modestas y recogidas Renterianas de aquellos tiempos vestían sus trajes de merino para ir a misa y a vísperas.

Ogaño

Las desenvueltas muchachas del día visten a la *dernier* y muestran sus encantos en la plaza pública.

ikusten den zerbait: neska gazte batzuk agertzen dira kalean, helduen zaintzarik gabe, modan jantzitza. Hots, emakumeak kalera dibertitzera ateratzen hasi zirela irudikatzen da, ez lehenago gertatzen zen bezala, mezatarra, fabrikara edo etxeko lanak gauzatzeko (garbiketarak, erosketak...) abaguneetan bakarrik.

Beste arrasto bat bertsolaritzatik dator. 1919. urte berebean misioak izan baitziren herrian. Hau da, kanpoko predikariak gerturatu ziren egun batzuetan dotrina irakastera, edo Errikotxia bertsolariak esan zuen bezala, "pekatariyak libratutzera etsai gaiztoen katetik". Errenteriako Frailia bertsolariak sermolariek esandakoa bertsotan jarri zuen eta azpimarragarria da bertan egiten den emakumeen portaera berrien gaitzespen zehatza eta gogorra, aurreko misioetan agertzen ez zen aipamena, alegia. Hau esaten zuen bertsokak:

Misiyua kulpitotik
mintzatu da garbi,
ederrak esan dizkate
emakumeari;
endemas dendero
jostuna oieri,
gonak luzatutzeko
neska gazteari,
gurasoen kulpa
egin dute ori.

Korsian bolantiak,
petxua ageri,
kamisa jantzi nahi ezik,
gezurra dirudi;
gonak beti moztuak
sobra ta gehiegi,
sorgiñaren figura
nai lukete jarri;
dontzellarentzak planta
ederra da ori

Soñu edo batzarra,
dantza edo bailia,
orrek in kejatua da
misiyo-jendia;
naxkak arrosko samar
dantza orren zalia,
inpernura ikasi
zenduen biria;
eztakazu pasaturik
eternidadia.

Dena den, esan dezakegu emakumeen portaera berriak finkatzen joan zirela hurrengo

urteetan, klero ahaltsua kontra egon arren. Gainera ogibide berrietan sartuz joan ziren pixkanaka hurrengo hamarkadan, idazkariak, funtzionario edo erizain lanak egiten. Geroago, Errepublikaren garaian, iritsi zen legedian aldaketak ezartzeko aukera, Konstituzioak onartu baitzuen gizonen eta emakumeen berdintasuna, eta lege desberdinek emakumeen bozkatzeko, emakume ezkonduak lan egiteko eta emakumeek soldata berdina jasotzeko eskubideak aldarrikatu zituzten, gutxi iraun zuten arren.

Oinarrizko bibliografia

Errenteriako egoerari buruz gerra garaian

LUENGO TEIXIDOR, Felix: "Los comienzos del siglo XX (1903-1931). *Historia de Rentería*. Errenteriako Udala. Errenteria, 1996.

"Cuestionario respuesta a la Inspección General de Sanidad Interior en cumplimiento de la Real Orden de 31-12-1910. Noviembre de 1911" (Firmado por Martin Mozo), en BARCENILLA, Miguel Angel: *La Pequeña Manchester*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1999. Anexo 5.

Emakumeen egoerari buruz

ANDERSON, B. S.; ZINSSER, J. P.: *Historia de las mujeres. Una historia propia*. 2 vols. Crítica, Barcelona, 1991.

UGALDE SOLANO, M.: *Mujeres y nacionalismo vasco. Génesis y desarrollo de Emakuma Abertzale Batza (1906-1936)*. EHU-UPV. Bilbao, 1993.

GOMEZ FERRER, G.: "Visión del estado y la ciudadanía desde una perspectiva histórica" en P. de Villota (Editora): *Las mujeres y la ciudadanía en el umbral del siglo XXI*. Universidad Complutense. Madrid, 1998.

Bertsolaritzaz

ZAVALA, Antonio: *Juan eta Pello Zabaleta Bertsolaiak*. Auspoa Liburutegia 63-64 Tolosa, 1967.

— *Errenteria'ko bertsolari zaarrak*. Auspoa Liburutegia, 74-75. Tolosa, 1968.

— *Lexo bertsolaria*. Auspoa Liburutegia, 79-80-81. Tolosa, 1968

— *Txirritaren bertsokak I*. Auspoa Liburutegia 101-102. Tolosa, 1971.